

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntzak Irakasleen Prestakuntzarako Nafarroako Kontseilua berraktibatu du

Gaur goizean bertan, eta 2018-19rako hezkuntza-itunari jarraiki, Kontseilua berriro bildu da osaera berrituarekin

Osteguna, 2018.eko azaroak 8

Hezkuntzak berriro abian jarri du Irakasleen Prestakuntzarako Kontseilua, eta gaur hasi da lanean, 2014az geroztik deitu gabe baitzegoen. Goizeko 10:00etan, Kontseilua osatzen duten langile guztiak Hezkuntza Departamentuaren Arga aretoan bildu dira. Bileran behar bezala joan da, eta



Irakasleen Prestakuntzarako Kontseiluaren bilera.

departamentuak berak Kontseiluaren funtzioak betetzeko konpromisoa hartu du aurrez. Gainera, horrela adostu zuten Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko 2018-2022 Itunean, bertan Hezkuntza Departamentuak Prestakuntza Kontseilua berriro deitzeko konpromisoa hartu baitzuen, 2018-19 ikasturtetik aurrera berriro abian jartzeko, eta funtzioak berriz definitu eta prestakuntza-programa egiteko, onartzeko eta ebaluatzeko gaitasuna emateko, Hezkuntzako Departamentuko ordezkariekin batera.

Egitura organikoa eguneratzearen ondorioz, Kontseiluaren beraren egitura ere berriz definitu da, eta osatzen duten pertsonen karguak berriz izendatu dira. Modu horretan, Kontseiluaren egungo osaera Hezkuntza Departamentuaren egiturara egokitu da, hots, [urtarrilaren 11ko 5/2017 Foru Dekretuan jasoa, Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena](#). Hortaz, Kontseiluaren kideak honako hauek izango dira, gaur bildu direnak:

- Hezkuntzako zuzendari nagusia (lehendakaria)
- Ebaluazio, Kalitate, Prestakuntza, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuko zuzendaria
- Hezkuntzako Ikuskatzailatza Zerbitzuko zuzendaria
- Lanbide Heziketako Zerbitzuko zuzendaria
- Eleaniztasun eta Irakaskuntza Artistikoko Zerbitzuko zuzendaria
- Prestakuntzako Ataleko burua
- Prestakuntza Programen bulegoko burua

- Irakasleentzako Laguntza Zentroen eta Berrikuntza Proiektuen bulegoko burua
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako Irakasleen Batzordeak lotesle eran proposatuta izendatutako 4 kide (babes gehiena duten ordezkari sindikalak, LAB, STEILAS, AFAPNA, ANPE)
- Prestakuntza Ataleko irakaskuntza-aholkularia, Kontseiluaren idazkari gisa, Prestakuntzako zuzendari nagusiak proposatuta.

Ondorioz, Roberto Perez Elorzak zuzendu du goizeko 10:00etan departamentuan bertan hasi den bilera. Deialdira joandakoak ildo estrategikoak eta irakaskuntzako eskumenak zeintzuk diren gogoratzen hasi dira. Ondoren, Prestakuntza Planaz, berrikuntza-proiektuez eta Kudeaketa Programaz hitz egin dute. Behin aurreikusitako gai-zerrenda amaituta, galderak eta ekarpenak artatzen aritu dira.